

Liburuak

KRITIKA

Etxe hutsean.
Karlos Linazasoro.
Alberdania.
68 orrialde. 12 euro.

Helduen literatura
Igor Estankona



Alfa eta omega

2004AN, ia batera joan zitzaizkion Karlos Linazasorori ama eta aita, eta eurek utzitako etxe hutsean idatzi ditu, terapia antzera, liburu honetako poema bihotzekoak. Oroitzape-nak bizitzarekin nahastu zitzaizkion halabeharrez tolosarra-ri. Gurasoei agur esan die liburu honekin, era berean diosal eginez txikitako, gaztetako, betiko txoko, jostailu, berba, altzariei...

Etxe hutsean samur hau ez da kantu etsitu bat, heriotzari zentzua bilatzeko –beste– ahalegin bat baino. Heriotza eta gomutak, honenbestez, liburuko pertsonaia bihurtzen dira, autorearekin batera.

Lirismo sinple eta hurrekoa erabiliz, Linazasororen estilo jolastiarekin eta artifizio barik idatzia dago liburu. Fina da haikuetan laburbiltzen dituen hainbat sentimendu, dibertigarria da aspaldiko pasadizoak dakartzanean eta ederra, uneka, etxe hartan bizi izan zen haurrari uzten dionean boligrafoa hartu eta idazten.

Poema estandar bat eta hiru haiku, beste poema estandar bat eta hiru haiku... egitura horri jarraituz eroango zaitu Linazasorok intimitateraino, autoreak berak egindako marrazki lazgarriek doluren samina gogorazaziko dizutela-rik. Fama txarra dauka heriok, baina poetak, kasu honetan, desmitifikatu egin du, hizkera ulertterazera ekarri du, bizi-tzara ekarri du: “Beheko sua/ burruntzi urdinkaretan/ urtuz, gaixua.// Entzun oraindik/ txingarrek utzi zuten/ musu usaina!”. Ederto ekidin du autoreak hain arriskutsua izan ohi den gehiegizko nostalgia. Badiot: bizi-bizirik dago heriotza liburuan, eta beraz bete-beterik dago etxe huts hau ere.

Sinplea baina sakona, horrelakoa da Linazasorok proposatzen digun terapeutika, normala delako norberaren munda-tako bat desagertzean norbere zati bat ere desagertzea, eta amorrua sentitzea, gero malenkonia, inoiz baita harri-dura ere. Zainetan poesia daramanak galerari kantatzen dio-nean, oster, zentzua har dezake absurdirik handienak ere: ahazten laguntzen du gogoratzeak.

Linazasorok dio ez dela egundo gehiago itzuliko guraso-en etxera, ez dituela zapalduko zoru horiek. Egia esan, beti distiratsu egongo dira liburu honetan. Beti beteta. ■

Ilargi taberna

Lau eskutara idatzitako nobela duzu *Arrain abisalak*. Elkarrek eman du argitara, Xabier eta Martin Etxeberriaren eleberrri hau. Ez da anaiok modu honetan idatzi duten aurrenekoa: aurretik *Itxoidazu Café de Passy-n* (2004) eta *Ez dadila eguzkia sartu* (2006) ere elkarrekin idatziak zituzten. Nobela

berri honetan taberna bat aurkituko duzu. Ilargi taberna. Eta txoko horretara bilduko dira pertsonaia ugari: Tasio eta Ugarte, Arantxa eta Virginia, Xanti eta Miel, Olaso eta Perez... Baina halako batean, horietako bat hilda azalduko da. Heriotzak besteen arteko harremanak ere gaiztotuko ditu. Polizia-eleberria da, funtsean, Etxeberria anaien lan berria. ■




Arrain abisalak.
Xabier eta Martin
Etxeberria.
Elkar.
276 orrialde.
19,95 euro.

Haitzuloetako artea ulertzeko ezinbestekoa

Gaiak argialetxeak publikatu du Jean Clottes eta David Lewis-Williams-en *Historiaurreko xamanak* liburu. Haitzuloetako artean interesa duenarentzat, tresna baliagarria izango da liburu hau. Egileak nazioartean sona handia duten ikerleak dira: Clottes Haitzuloetako Artearen Nazioarteko Batzordean lehendakari da, eta Lewis-Williams Rock Art Research Institute-eko zuzendaria. Jatorriz 1996an frantsesez argitaratua, mundu akademikoan eztabaida piztu zuen lana duzu honakoa, xamanismoarekin lotu zituelako historiaurreko artearen adierazpen ugari. Egileen ustez, xamanismoak Eurasian izan zuen sorleku garrantzitsu bat,

eta unibertso sinboliko hori lot daiteke Paleolito-ko artearekin. ■



Historiaurreko xamanak.
Jean Clottes/
David Lewis-Williams.
Gaiak.
271 orrialde.
23 euro.